

BIBLIOGRAFIA

1969-KO EUSKERAZKO LIBURUAK

Īgaz, EGAN-en 4-6 zenbakiaren 158-168 orrialdeetan argitara nuen 1963-1968 urteetako euskerazko liburuen zerrenda. Orduan esaten nuen bezala, ez da erreza argitaratutako liburu guztien berri ematea. Aurten bertan, 1969-koen lista eman nuen **Anaitasuna** aldizkariaren 182-garren zenbakian (otsailaren 15-ekoa), baina geroztik ere igazko urtez gehiago argitara direnez, oraingo honetan osatuago emanen dut. Gainera, EGAN-en hasi nuen lanari bertan jarraitzea ondo deritzat. EGAN, honetarako aukerako aldizkaria izateaz aparte, ateak pronto idiki dizkidana dut.

1969-ko EGAN-en 4-6 zenbaki horren 158-159 orrialdeetan nion bezala, ez da gauza erraza argitaratzen diren liburu guztien kontaduria eroatea, beti gelditzen zaizkigulako aleren batzuen beren berriak garaiz heltzeke. Eta, alperrik ahaleginak egin, hori gertatuko zaigu kontrol bat bideratzen ez dugun artean. Esate baterako, **Anaitasuna**-n nion legez, **The British Museum** dalakoak oso ondo eratuak daduka ingeles hizkuntzan argitaratzen diren liburu guztietarik bina bertara igortzeko ohitura zabaldu zuelako. **Instituto del Libro Español**-ek ere, antzerako zerbait egiten du, baina oraindik ez du lortu Espainian argitaratzen diren denak bereganatzerik. Bai **The British Museum**-ek eta bai **Instituto Nacional del Libro Español**-ek, kataloguak argitaratu eta zabaltzen dituzte beren hizkuntzez argitaratzen diren liburuez, eta, jakina, nahi duenak bertan bilatu ahal du komeni zaiona. Guk ordea, hain liburu gutxi argitaratzen ditugularik ere, ezin antolaturik gabilta irakurleak beharrezko duen aukera hori.

Zenbait aldiz proposatu dut Euskaltzaindiak ez duela hori egin ezinik, eta **Euskera** aldizkarian urtero argitara urtean-urteko liburu guztien lista. Baina ez hemen agertzen dudan lista soila, baizik egilearen izen-deitureak, liburuaren izenburua, dituen orrialdeak, rustikaz ala enkuadernatua den (eta enkuadernatua bada, larruz ala telaz den), neurriak zabal eta luzean, argitara den saila (kolekzioa), imprimeria, huria, urtea eta salneurria jarriaz, eta hoi ez gainera lerro labur batzuek zer gai erabiltzen duen adieraziaz. Besterik ez. Eta azpiko lerroak kritika gabe, baizik gaia soilki adieraziz. Horrela, irakurleak hartuko luke begiratzeko ohitura, eta horrek berakin duen zabalkundeagatik, argitaratzeileak liburuaren ale bat bialtzeko ohitura, eta era berean, Euskaltzaindiak euskerazko literaturaren biblioteka aberats bat lortuko luke. Hau ez da gauza gaitza.

Aipatutako EGAN-en begiratu bestelako zenbait liburu zergatik ez ditudan sartzen. Salgai jartzen ez diren hoietakoak, haurrendako gertatzen diren kuadernuzko ipui laburrak eta abar.

EGAN-go **Azken sei urteetako euskerazko liburuak** (1963-tik 1968-ra artekoak) izeneko bilketan, guk ahaleginak egin arren, huts bat baino gehiago egin genituen, eta orain zait garaia honen berri emateko. Esate baterako, 1967-ko listan sartu gabe utzi genuen **Txilida**, artezko liburu ederra, Pierre Volboudt-ek egina eta N. Etxaniz eta L. Mitxelenak euskeratua, Barcelonako Gustavo Gili, S.A.-k argitaratua; eta baita Azkue-ren **Aintziñako ipuiñak**, Zarauzko Itxaropenak 1968-an argitaratua, baina egia esan, hau, atzeratua irten zalako, zeren nekez aitzutzekoa zitzaidan neronek gertaturiko ipui bilduma zenez, eta neronen hitzaurrez gainera.

Hemendik ikusi genezake orain ere holako zerbait gertako zaigula, baina bat edo bestekin huts egin edo ahaztu arren, nahiago dugu ahal duguna bete. Isilik gordetzea baino hobe da.

Ondorean, 1969-an argitaratutakoen berri emanen dugu. Bertan faltako diranen berri norbaitek ematen ba digu, bihotzez eskertuko dugu.

Anaitasuna-n agertu nituen 40 aleri beste zazpi gaineratu beharra dut. Beraz, 47 liburuaren berriak jaso ditugu, lehenago esan bezala, ipuin laburrak eta Liturgiakoak sartu gabe.

1969

Arantza arcean, Xabier Gereño. "Kuliska Sorta". Zarautz.

Argiz argi (1947-1957), Iratzeder. Editions Ezkila. N. D. de Belloc. Urt.

California... Ku-ku!, Antonio María Labayen. "Kuliska Sorta". Zarautz.

Charles Perrault'en Ipuiañak (bigarren argitalpena), Etxebarria'tar Juan Anjel'ek euskeratua. S. Anton Katekesia. Bilbao.

Egazkiñen mundua, J. Lewellen eta I. Shapiro. Etxaniz'tar Nemesiok euskeratua. "Margo-ederdun Enziklopedia", Timun Mas, S. A. Barcelona.

Egunero hasten delako, Ramón Saizarbitoria. Lur. Bilbao-Donostia.

- Elsa Scheelen**, José Luis Alvarez Enparantza "Txillardegi". Kriselu. Bilbao.
- Ene ixil-oiuak** (Eta Donostiko bertso ale batzuek), Arozamena'tar Jesús María Donostiako Caja de Ahorros Municipal-ak. Izarra. Donostia.
- Españi'ko olerkariak euskeraz**, Etxebarria'tar Juan Anjel. S. Anton-go Katekesia. Bilbao.
- Etxahul'en bertsoak gipuzkeraz**, Yon Etxaide. Zarautz.
- Euskal Elerti 69**, bilduma (saiaera: **Euskeraren inguruan**, J. San Martín; nobela: **Beste izakia**, X. Kintana; antzerti: **Historia triste bat**, S. Garmendia; **Makina**, J. M. Zumalabe, A. Santamaria eta J. A. Eizmendi; **Beste mundukoak eta zoro bat**, G. Aresti; ipui, X. Kintana, M. Azurmendi-Intxausti, P. Urkizu; poesia, **Poesia banatua**, R. Saizarbitoria, **Euskal Hilobia**, M. Azurmendi-Intxausti), Lur argitaldaria. Bilbao-Donostia.
- Euskal idazleak - Añibarro**, antolatzaile: Etxebarria'tar Juan Anjel. Bilbao.
- Euskal idazleen lorategia** (itz lauz), Karmelo Etxenagusia. Hegosa. Donostia.
- Euskera-Batasuna**, Koldo Mitxelena eta lankideak. Irakur Sail. Donostia.
- Ezin bertzean**, Fernando Aire "Xalbador". Auspoa. Tolosa.
- Ezpata zorrotza (olerkiak) - Ezkutuko aria** (antzzeria), Etxebarria'tar Juan Anjel. Bilbao.
- Franzisko Iturzaeta bertsolaria**, A. Zavala. Auspoa. Tolosa.
- Gu euskaldunok - I. Euskalerrri zaharra**, Anastasio Arrinda.
- Harri eta Herri** (Piedra y Pueblo), bigarren argitalpena, G. Aresti. Kriselu. Bilbao.
- Ipar Euskal-Herria**, J. M. Torrealday, T. M.—Olaso, P. Larzabal, J. B. Dirassar, P. Xarritton, D. Landart, J. Haritschelhar, R. Kanblong, J. L. Davant, D. Peillen. "Jakín-sorta". Arantzazu-Oñate.
- Ipuñak**, Hans Christian Andersen, Etxebarria'tar J. A.—ek euskeratua. San Anton-go Katekesia. Bilbao.
- Isturitzetik Tolosan barru**, José Antonio Arze "Harzabal". Zarautz.
- Itsasoetan**, Obras Musicales del Padre Donostia. Lekaroz.
- Izadiaren mundua**, M. Refoy. Dorrnoso'tar Lukas-ek itzulia. "Margo-ederdun Enziklopedia", Timun Mas, S. A. Barcelona.
- "**Jainkotxo**" eta **gizagurenen mundua**, Morris Schreiber. Murua'tar Ramón-ek itzulia. "Margo-ederdun Enziklopedia", Barcelona.
- Jesukristo** (Kristau Fedearen sustraiak - II), Luis Villasante. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones. Donostia.
- Juan María Zubizarreta bertsolaria** (1855-1905), A. Zavala. Auspoa. Tolosa.
- Juantxo txiki**, Anastasio Arrinda. Zarautz.
- Kikero'ren eskutitzak**, Etxebarria'tar Juan Anjel. S. Antón. Bilbao.
- Motza**, Zulaika ta Ugalde bertsolariak, A. Zavala. Auspoa. Tolosa.
- Mugarra**, Agustín Atutxa.
- Mundua**, guztioi erakutsia, George Monlau. Mikel Atxagak euskeratua. "Margo-ederdun Enziklopedia". Barcelona.
- Nekazariaren dotrina**, F. Marcos da Portela. G. Arestik euskeratua. Kriselu. Bilbao.

- Oto ta Pototo**, Anastasio Arrinda, Zarautz.
- Poema amaitu bakoak - Poemas inacabados**, Luis de Aróstegui. A. Onaindiak euskeratuak. Bilbao.
- Poemagintza**, Ibon Sarasola. Lur. Donostia.
- Politikaren atarian**, Rikardo Arregi. Lur. Donostia.
- Prantzi'ko olerkariak**, Etxebarria'tar Juan Anjel. S. Antón Katekesia. Bilbao.
- Sorkalde urrutia**, M. Sawyers eta W. Reusswig. Izuzkiza'tar Juan Jose'k euskeratua. "Margo-ederdun Enziklopedia". Barcelona.
- Txalo jo Jaunari (I)**, Arantzazuko Liturgi-taldea. Arantzazu-Oñate.
- Txapel bertsolaria.—Euxebio Eizmendi (1893-1969)**, A. Zavala. Auspoa. Tolosa.
- Uhin berri (1964-1969 poesia bilduma)**, J. San Martín. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S. A. Donostia.
- Umeen Biblia**, Dr. Jakob Ecker. Kerexetak euskeratua (bizkaieraz). Bilbao.
- Umeen Biblia**, Dr. Jakob Ecker. Kerexetak eta Zugastik euskeratua (gipuzkeraz). Bilbao.
- Uste gabeen**, Manuel Matxain. Auspoa. Tolosa.
- Xenpelar bertsolaria**, A. Zavala. Auspoa. Tolosa.
- Zein da errudun? eta Nobi bat bear dogu**, antzerkiak, Xabier Gereño. Euskerazaleak. Bilbao.

JUAN SAN MARTIN